

**MUNGLIAN AUZOTAXI ZERBITZUA
ERABILTZEKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO
2026ko DEIALDIA**

Udalbatzak, 2021eko urriaren 29an egindako ohiko osoko bilkuran, Mungian Auzotaxi zerbitzua erabiltzeko diru laguntzak ematea arautzen duen ordenantzaren hasierako onespina ematea erabaki zuen. Bertan adierazten denez, jendaurrean jartzeko epean erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu ezean, erabakia behin betiko onartutzat joko da. Ordenantza jendaurrean jarri zen eta interesdunei entzuteko izapidea bete zen; iragarkia 2021eko azaroaren 16ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 220. zenbakian, udalaren webgunean eta udaletxeko ediktu-oholean argitaratu zen. Aipatutako jendaurrean jartzeko epea amaituta, erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu ezenez, erabakia behin betiko hartu zela ulertu zen, eta erabaki horren testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2022ko urtarrilaren 5ean, 3. zenbakian.

Lehenengoa.- Diru-laguntzaren xedea

Deialdi honen xedea hau da: Auzotaxi zerbitzuaren erabileraren bidez horrela eskatzen duten Mungia herritarren joan-etorri gastuak diruz laguntzeko aukera ematea, 22-1533-47101 partidaren kontura.

Bigarrena.- Betebehar Orokorrak

1. Onuradunak:

Honako hauek eskatu ahal izango dituzte laguntzak:

- a) Mungian hirigunetik kanpo erroldatutako pertsona adinez nagusiak (hirigunetzat zer hartuko den jakiteko, ikusi ordenantzaren eranskinean doan planoan).
 - b) Mungian hirigunetik kanpo erroldatutako 15-18 urte bitarteko pertsonak (hirigunetzat zer hartuko den jakiteko, ikusi ordenantzaren eranskinean doan planoan). Herritar horiek, Auzotaxien zerbitzua erabiltzeko, ezinbestean aurkeztu beharko dute euren gurasoek edo legezko tutoreek sinatutako baimena eta pertsona erantzulearen NANaren fotokopia.
- Eskaria egiten dutenen, eta diru-laguntza eskuratzen duten bitartean, egunean izan beharko dituzte udal betebeharrak, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.
 - Ezingo dira diru-laguntzen onuradun izan Mungia Udalak eta bere Erakunde Autonomoek ematen dituzten Diru-

**CONVOCATORIA 2026 PARA LA CONCESION DE
SUBVENCIONES PARA EL USO DEL SERVICIO
AUZOTAXI EN MUNGLIA**

El Ayuntamiento Pleno, en sesión ordinaria celebrada el día 29 de octubre de 2021, acordó aprobar inicialmente la Ordenanza Reguladora para la concesión de subvenciones para el uso del servicio de Auzotaxi en Mungia, señalándose en el mismo que, de no presentarse reclamaciones o sugerencias dentro del plazo de exposición pública, el acuerdo se entendería definitivamente adoptado. La ordenanza fue sometida a trámite de información pública y audiencia a los interesados, mediante la publicación de anuncio en el Boletín Oficial de Bizkaia número 220, de fecha 16 de noviembre de 2021, en la Web municipal y en el tablón de edictos del Ayuntamiento. Finalizado el plazo de exposición pública sin que se hayan presentado reclamaciones o sugerencias, se entendió definitivamente adoptado el acuerdo, procediendo a la publicación íntegra de su texto en el Boletín Oficial de Bizkaia número 3 de 5 de enero de 2022.

Primera.- Objeto de la subvención

Es objeto de la presente convocatoria el acceso a las ayudas económicas con cargo a la partida 22-1533-47101 para subvencionar los gastos de desplazamiento de los vecinos y vecinas de Mungia que así lo soliciten mediante el uso del servicio Auzotaxi.

Segunda.- Requisitos generales

1. Personas beneficiarias:

Podrán solicitar la subvención:

- a) Las personas mayores de edad empadronadas en Mungia fuera del ámbito geográfico del centro urbano (zona sombreada) en el plano del Anexo de la ordenanza.
 - b) Las personas de 15 a 18 años empadronadas en Mungia fuera del ámbito geográfico del centro urbano (zona sombreada) en el plano del Anexo de la ordenanza con la autorización expresa de los padres/madres o tutores legales para poder inscribirse debiendo presentar permiso firmado y fotocopia del DNI de la persona responsable.
- Deberán estar al corriente de las obligaciones municipales, fiscales y frente a la Seguridad Social en el momento de la solicitud y mientras se perciba la ayuda.
 - No podrán ser beneficiarios las personas que incurran en alguno de los supuestos así establecidos en el artículo 10 de la Ordenanza



laguntzen Ordenantza Arautzailearen 10. artikulua azaldutako egoeretakoren baten dauden pertsonak; ezta Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan ezarritakoak betetzen ez dituztenak ere.

- Udalaren erregistroetan dagoen informazioaren gainean ez da dokumenturik aurkeztu behar.
- Diru-laguntza ematen den epean aldaketarik egongo balitz, Udalari jakinarazi beharko zaio.

2. Diruz lagundu daitekeen epea:

2026ko urtarriletik abendura arteko epea, abuztua kenduta.

3. Joan-etorrien baldintzak eta Auzotaxi zerbitzuaren erabilera-arauak:

Honako baldintzak betetzen dituzten bidaiak lagun daitezke diruz:

- Auzotaxi zerbitzua astelehenetik ostiralera eskainiko da goizeko 7:30etatik arratsaldeko 20:00-ak arte eta larunbatako goizeko 9:00etatik 14:00ak arte urte osoan zehar, abuztuan izan ezik. Jaiegunetan ez da zerbitzurik emango.
- Bidaiak erreserbatzeko honako telefono zenbaki honetara deitu daiteke: 94.655.87.04; edota zuzenean taxilariekin harremanetan jar daiteke.
- Zerbitzuak erabiltzaileak eskatu beharko du bezperako arratsaldeko zortziak (20:00) baino lehen. Aldez aurretik abisatu gabe ere eska daiteke zerbitzua baina, kasu horretan, baliteke adjudikaziodunak zerbitzua egiteko modurik ez izatea. Ondorioz, aldez aurretik abisatu gabe zerbitzua eskatzen denean, ezin da zerbitzu hori bermatu.
- Eremu bereko erabiltzaile bat baino gehiagok zerbitzua eskatzen dutenean, ibilgailua partekatu ahal izango da. Partekatzeari dagokionez, ibilgailuak baimenduta dituen jesarleku kopurua izango da muga. Ibilgailuaren jesarleku guztiak bete beharko dira ibilbide eta ordutegi bera duten zerbitzuak eskatzen direnean.
- Zerbitzua zolatuta dauden bideetan eskainiko da.

4.- Ondokoak dira onuradunen betebeharrak:

- Joan-etorrien baldintzak eta Auzotaxi zerbitzua erabiltzeko arauak betetzea.
- Udalak egin beharreko egiaztapenak ahalbideratu eta eskatzen den informazio guztia ematea.

Reguladora de la Concesión de Subvenciones del Ayuntamiento de Mungia y sus organismos autónomos o en el artículo 13 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones.

- No será necesario justificar documentación en aquellos extremos que ya obren en los archivos municipales.
- Cualquier modificación que se produzca durante el periodo de concesión de la ayuda deberá notificarse al Ayuntamiento.

2. Periodo subvencionable:

El periodo comprenderá de enero a diciembre de 2026, exceptuando el mes de agosto.

3. Requisitos de los desplazamientos y normas de utilización del servicio de Auzotaxi:

Serán subvencionables los viajes que reúnan los siguientes requisitos:

- El horario cubierto por el servicio de Auzotaxi será de lunes a viernes de 7:30 de la mañana a 20:00 de la tarde y sábados de 9:00 a 14:00 horas durante todo el año excepto el mes de agosto. No se prestará servicio los días festivos.
- Los viajes deben reservarse llamando al número de teléfono 94.655.87.04 o poniéndose en contacto con los propios taxistas.
- El servicio deberá solicitarse por el usuario antes de las 20.00 horas del día anterior a su utilización. No obstante lo anterior, podrán solicitarse servicios sin antelación, si bien en este caso la prestación quedará condicionada a que la persona adjudicataria tuviera disponibilidad, sin que quede garantizada en ningún caso la atención de los servicios solicitados con este plazo de preaviso.
- Cuando se demande el servicio por más de un usuario en el mismo ámbito, se permitirá el uso compartido del vehículo. El uso compartido tendrá como límite el máximo de plazas autorizadas en el vehículo. Será obligatorio completar el número de plazas del vehículo cuando exista demanda suficiente en trayectos y horarios coincidentes.
- El servicio se prestará en caminos que se encuentren pavimentados.

4. Son obligaciones de las personas beneficiarias:

- Cumplir con los requisitos de desplazamientos y normas de utilización del servicio de Auzotaxi.
- Someterse a las actuaciones de comprobación a efectuar por el Ayuntamiento y facilitar cuanta información les sea requerida.

Hirugarrena.- Diru-laguntza ematea

Diru-laguntzak emateko ohiko prozedura ondokoa izango da: Auzotaxi zerbitzuaren erabiltzaileei zuzenean ematea.

Bidaia bakoitzaren kostua 12 eurokoa izango da, eta Udalak diruz lagundutako kopurua hauxe:

- 10 euro bidaia bakoitzeko, lehenengo berrogeita hamar bidaietan (0-50).
- 6 euro bidaia bakoitzeko, hurrengo berrogeita hamar bidaietan (51-100)
- 4 euro bidaia bakoitzeko, hortik gorako berrogeita hamar bidaietan (101-150).

Pertsona bakoitzak gehienez ere 150 bidaia egin ahal izango ditu urtean.

Laugarrena.- Eskariak aurkezteko epea eta lekua

1. Eskariak Udaletxean aurkeztu beharko dira, horretarako prestatutako ereduak erabiliz. Ereduak erakundean bertan eta honen web orrian eskuratu daitezke. Deialdi bakoitzean eskatzen zaizkion agiri osagarriak erantsi beharko ditu.

Agiri ofiziala eskatzaileak sinatu beharko ditu.

2. Diru-laguntza eskuratzeko eskaria aurkezteak oinarri hauetan ezarritakoa berariaz eta modu formalean onartzea dakar.
3. Eskariak aurkezteko epea 2026ko abenduaren 31ra artekoa izango da.
4. Eskariarekin batera ondoko agiriak aurkeztu beharko dira:
 - Deialdi honi erantsitako eskabide eredu bat.
 - Eskatzailea identifikatu ahal izateko agiria, edota, hala badagokio, haren izenean jardun denarena.
 - Erantzunkizuneko adierazpena, adierazten duena udal betebeharrak, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean daudela. (Eskaera eredu).
 - Erantzunkizuneko aiderazpena, adierazten duena eskatzaileak deialdiak jarritako baldintzak betetzen dituela. (Eskaera eredu).
 - Erantzukizuneko adierazpena, adierazten duena eskatzailea ez dagoela sartuta araudiak ezarritako debeku-egoeretan. Hona hemen aipatutako araudia: batetik, Mungia Udalak eta bere Erakunde Autonomoek ematen dituzten Diru-laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren

Tercera.- Concesión de la subvención.

El procedimiento ordinario de concesión de subvenciones, será de concesión directa a las personas usuarias del Auzotaxi.

El importe de cada trayecto se establece en 12 y el importe subvencionado por el Ayuntamiento será de:

- 10 euros por cada trayecto, para los trayectos comprendidos entre 0-50.
- 6 euros por cada trayecto, para los trayectos comprendidos entre 51-100.
- 4 euros por cada trayecto, para los trayectos comprendidos entre 101-150.

El límite máximo es de 150 trayectos al año por persona usuaria.

Cuarta.- Plazo y lugar presentación de solicitudes

1. Las solicitudes deberán presentarse en el Ayuntamiento, en los modelos que se diseñen a tal efecto y que están disponibles en las oficinas del citado organismo y en su página web. Se adjuntará la documentación complementaria que le sea requerida en cada convocatoria.

El impreso oficial estará firmado por la persona solicitante.

2. La presentación de solicitudes para optar a estas subvenciones comporta la aceptación expresa y formal de lo establecido en las presentes Bases.
3. El plazo para la presentación de las solicitudes será hasta el 31 de diciembre de 2026.
4. La documentación que acompañarán a la solicitud es la siguiente:
 - La solicitud cumplimentada y ajustada al modelo que acompaña la presente convocatoria.
 - Fotocopia del Documento acreditativo de la personalidad del solicitante y, en su caso, de la representación de quien actúa en su nombre.
 - Declaración responsable de encontrarse al corriente de las obligaciones municipales, fiscales y frente a la Seguridad Social. (En modelo de solicitud).
 - Declaración responsable en la que se haga constar que el solicitante cumple los requisitos exigidos por la presente convocatoria. (En modelo de solicitud).
 - Declaración responsable en la que se haga constar que el solicitante no se haya incurrido en ninguna de las causas de prohibición enumerada en el artículo 10 de la Ordenanza Reguladora de la concesión de Subvenciones del Ayuntamiento de Mungia y sus Organismos Autónomos y artículo 13 de la Ley 38/2003, Ley General de



10. artikulua; eta bestetik, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua.(Eskaera ereduan).
- Bestelako agiri osagarriak ere eskatu ahal izango dira.
5. Aurkeztutako eskariarekin batera ez badira beharrezko agiriak erantsi edota emandako informazioa ez bada nahiko, eskatzaileari 10 egun balioduneko epean dagokion agiriak bidaltzeko eskatuko zaio. Jadanik eskatutako epean agiriak bidaliko ez balitu, eskarian atzera egiten duela ulertuko da eta diru-laguntza ukatuko zaio.
6. Jakinarazpenetarako, Udalak eskarian agertzen den helbidea erabiliko du. Eskatzaileari dagokio egon daitekeen edozein aldaketaren berri ematea, batez ere eskatzailearen helbideari dagokionean.
7. Interesadunari jakinaraziko zaion eskaria onartu ondoren, Udalak eskatzaileari alta emango dio auzotaxiaren erabiltzaileen erregistroan eta erabiltzaileak auzotaxi txartela eskuratu ahal izango du. Txartel hori bakoitzarena eta besterenezina izango da eta, edozein kasutan, taxi zerbitzua erabiltzeko akreditazio gisa erabiliko da.

Bosgarrena. artikulua.- Ebazpena eta diru-laguntzak ordaintzea

Diru-laguntza hau gauzatuko da auzotaxiaren erabiltzaileei diru-laguntza emanez beraien joan-etorri pertsonaletarako. Hau kudeatzeko taxilariekin hitzarmen bat egingo da. Horretarako, ondorengo **erabiltzeko arau orokorrak** ezartzen dira:

1. Erabiltzailea auzotaxiaren erabiltzaileen erregistroan izena emanda egon behar da eta auzotaxi txartela eskuratu. Izen emate hori eskaria onartu ondoren egingo da eta baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren. Izen-ematea urtero berriztatu beharko da, eskari-orria betez.
2. Taxi zerbitzua gauzatzekoan, erabiltzaileak bere erabiltzaile txartela erakutsiko du identifikatzeko eta taxilariari bonu bat emango dio (aldeztatik aurretik Udaletxean eskuratuko duena) egiten duen bidaia bakoitzeko.
3. Erabiltzaileak udaletxean eskuratuko ditu bonuak. Bonu bakoitza 10 bidaiarako izango da. Kostua ondokoa izango da:
 - Bidaia kopurua 0-50 artekoa denean, 10 bidaia egiteko: 20 euroko bonua.
 - Bidaia kopurua 51-100 artekoa denean, 10 bidaia egiteko: 60 euroko bonua.

Subvenciones. (En modelo de solicitud).

- Podrá exigirse otra documentación complementaria.
5. Si las solicitudes presentadas no son acompañadas de la documentación requerida o si la información facilitada no se considera suficiente, se requerirá al solicitante para que en el plazo de 10 días hábiles remita la documentación que corresponda. Si no enviase la documentación requerida en el plazo señalado anteriormente, se tendrá por desistida su petición, procediéndose a la denegación de la ayuda.
 6. A efecto de notificaciones, el Ayuntamiento hará uso del domicilio que figure en la solicitud. Será cometido de la persona solicitante informar expresamente de cualquier variación de datos que haya podido haber, especialmente en lo referente al domicilio del solicitante.
 7. Con la aceptación de la solicitud que será notificada a la persona interesada, por parte del Ayuntamiento se dará de alta al solicitante en el Registro de usuarios/as de Auzotaxi, y éste podrá adquirir la tarjeta Auzotaxi. Dicha tarjeta es personal e intransferible y deberá presentarse, en todo caso, como acreditación para utilizar de servicio de taxi.

Quinta.- Resolución y pago de las ayudas

Esta subvención se concreta en la concesión de una ayuda económica a los/as usuarios/as de Auzotaxi, para sus desplazamientos personales y su gestión se realizará mediante Convenio con los taxistas. Para ello se establecen las siguientes **normas generales de utilización**:

1. El/la usuario/a deberá estar inscrito en el Registro de usuarios/as de Auzotaxi y disponer de la tarjeta Auzotaxi. Dicha inscripción se realizará una vez aceptada la solicitud y verificado el cumplimiento de los requisitos. La inscripción deberá renovarse anualmente rellenando el impreso de solicitud.
2. Al realizar el servicio de taxi, la persona usuaria se identificará con su tarjeta de usuario/a y entregará al taxista un bono (que previamente adquirirá en el Ayuntamiento), por cada trayecto realizado.
3. Los bonos serán adquiridos por la usuaria en el Ayuntamiento, en forma de Bonos de 10 trayectos, con un coste de:
 - Bono de 10 trayectos para realizar los trayectos comprendidos entre 0-50: 20 euros/bono.
 - Bono de los 10 trayectos para realizar los trayectos comprendidos entre 51-100: 60 euros/bono.



- Bidaia kopurua 101-105 artekoa denean, 10 bidaia egiteko: 80 euroko bonua.
4. Gehienez ere erabiltzaile bakoitzak urteko 150 joan-etorritarako bonuak eskuratu ahal izango ditu.

Erabiltzaile bakoitzak ezin izango du aldi berean bono bat baino gehiago eskuratu eta azkeneko bonoa erosi zuenetik hurrengoan erosi arte gutxienez astebete igaro beharko da.

5. Udalak hitzarmenean ezarrita dagoen kopurua ordainduko dio taxilariari bidaia hori egiteagatik. Kopuru hori bat etorriko da erabiltzaileari diru-laguntza bidez emandako kopuruarekin hirugarren baldintzan oinarrituta (taxilariari ordaintzen zaio endosu-hartzaile bezala, aipatutako hitzarmenaren arabera) eta Udalarari bonoaren ordainetan emandako kopuruarekin.
6. Bono-taxiak bakoitzarenak eta besterenezinak dira. Erabiltzaileak ezin izango du bonorik eskuratu Udalarekin zorrrik izanez gero.
7. Bonu bakoitzak bidaia baterako balio du eta taxilariak jasoko du aurkeztu eta ordaindu dakion.
8. Taxilariak erregistroak behar bezala beteta izango dituzte, bonuen egiaztagiriekin, zerbitzuaren data eta ordua adieraziz eta baita erabiltzailea eta helmuga ere.
9. Urte horretan eskuratutako bonuek abenduaren 31ra arte balioko dute; eta erabili ez badira, ezin izango dira itzuli.

Seigarrena.- Kontsignazioa

1. Diru-laguntzetarako gehieneko kopurua 25.000,00 eurokoa izango da eta 22-1533-47101 aurrekontu partidari dagokio, horretarako, 2026ko aurrekontuak kreditu nahikoa eta egokia izen beharko du gastuari aurre egiteko.
2. Aurrekontuaren ekitaldiaren barruan emandako laguntza guztien bolumenak ez du gaindituko aipatutako kontsignazioa edota aurrekontu aldaketak onartuko balira eguneratzearen ondorioz egin dena.
3. Laguntzak 10 joan-etorritako bonua erosterakoan emango dira. Diru-laguntza eman arren, taxilariak gero justifikatu egin beharko du eta 2. puntuari adierazitako aurrekontu mugak kontuan izango dira.

Zazpigarrena.- Beste diru-laguntza batzuekiko bateragarritasuna

Oinarri hauetan araututako diru-laguntza xede bera duten beste Administrazio Publiko batzuen laguntzekin bateragarria izango da, betiere diruz

- Bono de 10 trayectos para realizar los trayectos comprendidos 101-150: 80 euros/bono.

4. Cada persona usuaria podrá adquirir bonos correspondientes a 150 trayectos al año como máximo.

Cada usuaria no podrá adquirir más de un bono al mismo tiempo y deberá transcurrir como mínimo el plazo de una semana entre compra del último bono y el siguiente.

5. El Ayuntamiento pagará el coste del trayecto al taxista que haya prestado el servicio según el Convenio con el/la taxista. Dicha cantidad se corresponde con la subvención que se concede al usuario/a según se establece en la cláusula tercera (la cual se abona al taxista como endosatario/a en base al citado Convenio) y con el importe abonado en concepto de bono al Ayuntamiento.
6. Los Bono-taxi son de uso personal e intransferible. La persona usuaria no podrá obtener ningún bono en caso de que tenga alguna deuda municipal.
7. Cada Bono tiene un valor de un viaje o trayecto y será recogido por el taxista para su presentación y correspondiente abono.
8. Los/as taxistas mantendrán los registros debidamente cumplimentados con los justificantes de los Bonos, indicando fecha y hora del servicio, usuario/a y destino.
9. Los bonos adquiridos en el año, tendrán validez hasta el 31 de diciembre del año de adquisición, y en caso de no utilizarse no cabe la posibilidad de devolución de los mismos.

Sexta.- Consignación

1. La cuantía total máxima destinada a las subvenciones convocadas será de 25.000,00 euros y la partida presupuestaria a la que se imputa es la 22-1533-47101, para lo cual el presupuesto del año 2026 deberá contar con un crédito suficiente y adecuado para hacer frente al gasto.
2. El volumen total de las ayudas concedidas dentro del ejercicio presupuestario no superará la citada consignación o la que resulte de su actualización en el caso de que se aprueben modificaciones presupuestarias.
3. Las ayudas se concederán en el momento de la compra del Bono de 10 trayectos. La concesión estará condicionada a la posterior justificación por el/la taxista y sujeta a los límites presupuestarios mencionados en el punto 2.

Séptima.- Concurrencia con otras ayudas

La ayuda económica regulada en estas bases será compatible con otras ayudas que para la misma finalidad concedan o puedan establecer cualquiera de

lagundutako jardueraren kostua gainditzen ez bada.

Zortzigarrena.- Diru-laguntza itzultzea

Pertsona onuradunak oinarri hauetan ezarritako ezein baldintza zein aplika daitekeen gainontzeko araudia ez betetzeak diru-laguntza eskuratzeko eskubidea guztiz edo zati batean galtzea ekarriko luke eta osorik edo zati batean dagozkion berandutza-interesak itzultzeko betebeharra ekarriko luke. Erabakia diru-laguntzak emateko organo eskudunari dagokio.

Bederatzigarrena.- Araubide juridikoa

Diru-laguntzak oinarri hauetan ezarritakoaz gain, Mungiako Udalak eta bere Erakunde Autonomoek ematen dituzten Diru-laguntzen Ordenantza Arautzailean ezarritakoaren arabera arautuko dira, baita azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorrak eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartutako erregelamenduaren arabera ere.

las Administraciones Públicas, siempre que no se rebase el coste de la actuación subvencionada.

Octava.- Reintegro

El incumplimiento por parte de la persona beneficiaria de cualquiera de los requisitos establecidos en las presentes bases y demás normativa aplicable, dará lugar a la declaración de la pérdida total o parcial del derecho a la percepción de la subvención y a la obligación de reintegrar ésta total o parcialmente y al pago de los intereses de demora correspondientes. La decisión corresponderá al órgano competente para conceder las subvenciones.


Novena.- Régimen jurídico

Las subvenciones se regirán además de por las presentes Bases Regulatoras, por la Ordenanza Reguladora de la Concesión de Subvenciones del Ayuntamiento de Mungia y sus Organismos Autónomos, así como por la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y su reglamento de desarrollo aprobado por Real Decreto 887/2006, de 21 de julio.

I. ERANSKINA/ ANEXO I

(Oharra: Markatuta agertzen den gunearen barruan erroldatuta daudenek ezin izango dute zerbitzua erabili.

(Nota: los empadronados en la zona delimitada no podrán utilizar el servicio)





II. ERANSKINA/ ANEXO II

Eskatzailea / Solicitante

NAN edo IFK / DNI o CIF	Abizenak eta izena edo Sozietatearen izena / Apellidos y nombre o Razón social		
Jakinarazpenetarako helbidea / Domicilio para la notificaciones			Telefonoa / Teléfono
Udalerría / Municipio	Posta kodea / Código postal	Probintzia-Herrialdea / Provincia-País	
Posta elektronikoa / Correo electrónico			

Ordezkaría / Representante

NAN edo IFK / DNI o CIF	Abizenak eta izena edo Sozietatearen izena / Apellidos y nombre o Razón social		
Jakinarazpenetarako helbidea / Domicilio para notificaciones			Telefonoa / Teléfono
Udalerría / Municipio	Posta kodea / Código postal	Probintzia-Herrialdea / Provincia-País	
Posta elektronikoa / Correo electrónico			

HAUXE AZALTZEN EDO ESKATZEN DUT / EXPONGO O SOLICITO LO SIGUIENTE

Adierazten dut / Declaro

<input type="checkbox"/> Egunean nago Gizarte Segurantzaren, Foru-ogusunaren eta Mungiako Udalaren ordainetan.	<input type="checkbox"/> Estoy al día en los pagos a la Seguridad Social, la hacienda foral y municipal de Mungia.
<input type="checkbox"/> Ez daukat inolako debekurik diru-laguntzak jaso ahal izateko.	<input type="checkbox"/> No tengo prohibición alguna para recibir subvenciones.
<input type="checkbox"/> Auzotaxi zerbitzurako diru-laguntza eskatzen dut.	<input type="checkbox"/> Solicito subvención para el Auzotaxi.
<input type="checkbox"/> Diru-laguntza jasotzeko eta auzotaxi-txartela eskuratzeko betebeharrak ezagutzen ditut.	<input type="checkbox"/> Conozco las obligaciones de la subvención y los requisitos para adquirir la tarjeta de usuario del Auzotaxi.

<p>ATXIKIMENDU-KONTRATUA sinatu nahi dut taxilariarekin batera, eta sinadura honen bidez atxikimendu-kontratu horren parte naizela aitortzen dut.</p> <p>Deseo formar parte en el contrato de adhesión con el taxista y con mi firma declaro que formo parte del mismo.</p>	<p>Sinadura eta data / Firma y fecha</p>
<p>ZINPEAN AITORTZEN DUT eskabide honetan emandako datu guztiak egiazkoak direla.</p> <p>Declaro bajo juramento que los datos incluidos en esta solicitud son verdaderos.</p>	
<p>Eskari honetan jasotako datuek aldaketaren bat izango balute, MUNGIako Udalari hilabeteko epean aldaketaren berri emateko konpromisoa hartzen dut.</p> <p>Me comprometo a comunicar al Ayuntamiento de MUNGIA en el plazo de un mes cualquier variación de los datos que hago constar en la presente solicitud.</p>	

<p>DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA</p> <p>Eskabide honetan jasotako datu pertsonalak, 6 DBEO Mungiako Udalarenak dira. Tratamendu honen helburua zure datu pertsonalak kudeatzea da, eskabide honetan aipatzen den zerbitzua emateko. Datuak ez dira lagako, legeak hala agintzen ez badu. Datuen titularrak doan baliatu ahal izango ditu indarreko legeriak aurrekiritako eskubideak, Mungiako Udalari zuzenduta (Trobika kalea 1, 48100 Mungia - Bizkaia).</p>	<p>INFORMACION BÁSICA SOBRE PROTECCIÓN DE DATOS</p> <p>Los datos personales recabados en esta solicitud, conforme al art. 6 RGPD pertenecen a AYUNTAMIENTO DE MUNGI.</p> <p>La finalidad de este tratamiento es la gestión de sus datos personales para prestarle el servicio al que se hace mención en esta solicitud. Los datos no serán cedidos salvo obligación legal.</p> <p>El titular de los datos podrá ejercitar gratuitamente los derechos contemplados por la</p>
--	---



Informazio gehiago nahi izanez gero, gure webguneko datuak babesteko atala kontsulta dezakezu.

<http://www.mungia.eus/es/proteccion-de-datos>

legislación vigente, dirigiéndose al Ayuntamiento de MUNGIA, en C/ Trobika nº1, 48100 Mungia- Bizkaia.

Para más información puede consultar el apartado de protección de datos de nuestra página web.

<http://www.mungia.eus/es/proteccion-de-datos>